

Bageraren buletina

2020 urtarrila

Urte berri on!

2020. urtea hasi berri dugu eta ondorengo ekimenak ditugu lehen hilabete honetan zuei eskaintzeko.

Bagerakide kuota kobratzea

Bazkideen urteko kuota otsailaren bigarren hamabostaldian pasako dugu. Gogora ezazue, Gaztezuloko harpidedunak zareten bagerakideei, batera kobratzen zaizkizuela bi kuota.

Urtero, arrazoi ugari direla medio, hainbaten kuota itzulita etortzen dira. Horregatik, martxoaren hasieran kuota kobratu ez zaizula ikusten baduzu, gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizuke, beharbada daturen bat gaizki dugu eta.

Mila esker zuen laguntzagatik, behar beharrezkoa dugu eta; laguntza horri esker egiten baititugu buletinaren bidez jasotzen dituzuen ekimen eta jarduera guztiak.

Bestetik, aurreratu nahi dizuegu, aurtengo Bageraren Batzar Nagusia martxoaren 7an izango dela goizez.

Euskaltzaleon Topaketen itzulpena eta hurrengo deialdiak

Bi hilabete dira Donostiako Euskaltzaleon Topaketak ospatu genituela San Telmo Museoa. Bertan, alde batetik, udaberriaren hasitako euskaltzaleon mugimenduaren inguruko diagnostika partekatu eta osatu genuen. Ondorioen laburpena eta txosten osoa [webgunean duzu eskuragarri](#)). Bestetik, aurrera begirako gogoak eta desioak elkarbanatu genituen eta topaketen itxieran ondorioetan nabarmendutako puntu batzuei jarraipena emateko beharra azaldu zen. Horretarako bi lan ildo proposatu nahi dizkizuegu:

- Euskara Batzordeetako eta tokian toki euskararen alde lan egiten duzuen norbanako zein eragileon artean kohesionatu, koordinatu eta esperientziak elkar trukatzeko beharra atera zen. Horretarako bilera batean elkartzea proposatzen dizuegu: **Urtarrilaren 23an, arratsaldeko 19:00etan** Bagera elkartearen (Hernani kalea 12, behe).

- Hizkuntza eskubideen aldarrikapena, euskaldunon ahalduntzea eta salaketa zein presio ekimenak bultzatzeko gogoak erakutsi zuten hainbat kidek. Hori lantzeko beste bilera bat proposatzen da: **Otsailaren 6an, arratsaldeko 19:00etan**, Arrano Beltza Euskal Biltokian (Alde Zaharra).

Mintzalagunen 2. izen ematea

Urtarrilaren 7tik 24ra Mintzalaguna egitasmoan izena emateko epea ireki dugu. Hau horrela, animatu nahi zaitugu *bidelagun* (euskaraz praktikatu nahi dutenei laguntzeko dinamizatzailer) moduan izena ematera, edo zure inguruan deialdia zabaltzera.

Euskaraldia: Lehen entitateen agerraldia



Urtarrilaren 27an, 11:30etan aurkeztuko dugu 2020ko Donostiako Euskaraldia, **lehen entitateen agerraldia** eginez. Bertan, datorren ediziorako jadanik prestatzen hasiak diren zenbait entitatek hartuko dute parte.

2018. urtearen bukaeran hizkuntza ohituren aldaketan pauso garrantzitsuak eman ziren Euskaraldia: *11 egun euskaraz* ekimenaren baitan. 2019-2020 urte bitartean egingo den bigarren edizioan pauso berriak emango ditugu eta, norbanakoek ez ezik, entitateek ere neurriak hartuko dituzte euren eremuko langile, bazkide edota kideen hizkuntza praktika berriak bultzatzeko. Beraz, norbanakoen erabaki esparruan ariztetik, taldeetara ere egingo da salto, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den bigarren edizio honetan.

Ibilbideak Donostiatik euskaraz

Urtarrilaren 8an hasiko gara Donostian zehar ibilbideak euskaraz egiten. Hitzordua 09:30ean Kursaaaleko albo batean dagoen Ni neu kafetegiaren ondoan izango da. Ibilbideak asteazkenero egingo ditugu, ordu ta erdiko iraupena izango dute. Hala ere, eguraldiaren arabera malguak izango dira. Ibilbide hauen helburua kirola eginez euskaraz aritzea da.


Elkarrizketa Filosofikoak

Urtarrilaren 13an, astelehena, urteko lehen Elkarrizketa Filosofikoa izango da 19:00etatik aurrera Urrats Euskaltegian (Amezketarrak kalea, 12). Gaia: narrazioa edo kontakizuna. Informazio gehiago eta dokumentazioa www.bagera.eus helbidean.

Zineforuma: Kuraiosa, Nora Alberdi

Antzoki ilun bat, pantaila zuri bat, lau ahots eta pertsona bat. Pantailan agertzen diren lau pertsonen euren gelako leihoa ireki eta barnean gordeak izan dituzten bizipenak eta sentimenduak xuxurlatzen dizkiete antzokian dagoen ikusleari; hala, bere gela propioa arakatzeko beharra sentituko du. Kolokan jarriko duten gaitzerrenda askotarikoa da: emakume edo gizonezko sortu izana, edertasuna, konplexuak, plazerra, maitasuna, orientazio sexuala eta polimaitasuna. Nortasun hegemonikoaren atzean, ikusle bakoitza ere bere nortasunaren inguruan hausnartzen hasiko da.

Urtarrilaren 14an, antolatu dugu hurrengo zineforuma, 18:30ean Koldo Mitxelena Kulturunean. Bertan, [Kuraiosa](#) dokumentala ikusteko aukera izango dugu eta jarraian Nora Alberdirekin solasaldia egingo dugu, filmaren zuzendariarekin.



Zerainera irteera

Urtarrilaren 25ean Zerainera irteera antolatu dugu Iruñeko eta Hondarribiko lagunekin batera. Bertan Txondorra eta karobia ikusteko bisita gidatua eta ibilbidea egingo dugu eta ondoren bazkaria Zeraingo ostatuan.

Animatuz gero, ES33 30350092570920042476 kontuan 30 euroko diru sarrera egin behar da urtarrilaren 22a baino lehen eta izena ematea beharrezkoa da [webgunearen bidez](#) edo Bagera Elkartera deituz.

Oharra: bazkarirako kopurua mugatua izango denez izen ematea lehenbailehen egitea komeni da. Autobusaren irteera ordua eta lekua aurrerago zehaztuko dugu.

Mendian ere euskaraz

Urtarrilaren 26an, Mendian ere euskaraz ekimeneko lagunek 31. Irteera antolatu dute Irantzuko monasteriora. Luzera 12km, desnibela 500m. Abiapuntua Monasterioaren parkingean goizeko 10:00etan izango da. Ibilbidea Irantzu-Arantzadia-Donpetri-Irantzu (zirkularra).

Mendi irteeran parte hartzeko eta informazio gehiagorako mendianeuskaraz@gmail.com helbidera idatzi behar da.

GREBA OROKORRA

Urtarrilaren 30ean Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak proposatutako GREBA deialdiarekin bat egitea erabaki dugu Bagerako langileok eta egun horretan bulegoa itxita egongo da.